


EUSKAL AEko ERAIKUNTZA KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2012ko MAIATZA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,8 jaitsi ziren 2012ko maiatzean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko maiatza, 2011koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,2 gehitu dira

2012ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,8 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,2 igo, EUSTATEN datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza maiatzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko maiatzean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %1 jaitsi dira.

Maiatzean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beheranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,8ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,8koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,1 igo ziren; Obra zibilekoak %1,8.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Energia elektrikoa eta gasa (%10,6), Petrolio-fintzea (%8,4) eta Makineria (%5,9) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2012ko maiatza 2011koaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-4,7), Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%-0,3) eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%0,4).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO MAIATZA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA	ALDEAREN %		
	2005 = 100 Oinarria	Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,6	-0,8	1,2	0,0
ERAIKINAK	119,4	-0,6	1,0	-0,1
OBRA ZIBILA	125,0	-1,3	1,6	0,5
LEHENGAIEN KOSTUA	119,7	-1,0	1,2	-0,2
ERAIKINAK	118,2	-0,8	1,1	-0,3
OBRA ZIBILA	125,3	-1,8	1,8	0,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp